

**Mugaz haraindiko
lurraldean esku-hartze sozial
kolektibo komunitarioa
bideratzeko gutuna**

Hitzaurrea

Gutuna Pirinioetako zortzi entitatek osatutako partzuergo batek egin du ReTsaso europar proiektuaren esparruan (Mugaz haraindiko osasun eta gizarte sarea). Europar Batasunak babestutako lankidetzaren ekimen hau 2014-2020 aldirako Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboaren parte da.

ReTsaso mugaz haraindiko osasun eta gizarte sarearen helburua da harremanak ezartzea Pirinioetako lurralde mugakideetan dauden osasun eta gizarte esku-hartzeko eragileen artean. Eragile sarea esku-hartzeko profesional, prestatzaile, ikertzaile, ikasle, elkarte eta fundazioak, lankidetzaren egiturak edo lurralde administrazio publikoak biltzen ditu.

Elkarlanerako plataforma bat du oinarri: retsaso.eu web interaktiboa, zeinak batez ere kartografia dinamiko bat, baliabide zentro bat eta eztabaida foroak baititu.

Online prestakuntzako 8 moduluko multzoa eskaintzen du, proiektuaren bazkideen prestatuak: Perpinyà Via Domitia Unibertsitatea (Ierrobura), Perpinyàko Lan Sozialeko Eskualde Institutua (FAIRE-ESS), ERASME Gizarte Laneko Profesionalen Prestakuntza Zentroa (Tolosa), Etcharry Formation Développement prestakuntza zentroa (Ustaritz), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Iruñea), Zaragozako Unibertsitatea, Lleidako Unibertsitatea eta Gironako Unibertsitatea. Modulu horiek esku-hartze soziosanitarioaren (hala nola osasunaren sustapena edo osasun paradigmari buruzko ikerketa) eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen (bazterketaren eta diskriminazioaren aurkako borroka, emantzipazioa, partaidetza, etab.) zenbait arlotan egiten dira.

ReTsaso sareak osasun eta gizarte arloko eragileen artean harremanak ezarri ez ezik alde batetik osasun eta gizarte esku-hartzearen ikuspegi jakin bat partekatzea eta bestetik lurralde mugakidean bateragarriak diren praktikak garatzea ere badu xede, eta auzoak diren herrialdeetako kultura berekien arteko iragazkortasuna eta porositatea sendotzea.

Jarraian aurkezten den esku-hartze sozial kolektibo komunitarioko gutunean daude jasota helburu horiek. Proiektuaren bazkideak dira bere sustatzaileak eta defendatzaileak. Gutunaren printzipioetarako atxikimendua nabarmentzen da, bereziki, online prestakuntza moduluak egiteko moduan, bakoitza aukeratu duen gaiaren esparruan. Plataforman izena emateko unean, sareko etorkizuneko kideei eskatzen zaie (ekarpena egiten dutenei) Gutunera ere atxikitzeke, sareak oinarri duen lankidetzaren etikaren funtsa baita.

I. Esku-hartze sozial kolektibo komunitarioa

Esku-hartze sozial kolektibo komunitarioak (ESKK) gai sozial eta soziosanitarioak aztertzen ditu, eta esku-hartze mota bat da ezagutzen ekoizpenaren eta ekintzaren ikusmolde partekatu eta lokalizatu batean funtsatuta metodologiak eta printzipio etikoak aldarrikatzen dituena.

1. Emantzipazioa

ESKK egiaztapen honetan oinarritzen da: egoera zail eta korapilatsuen konponbideak bizi edo pairatzen dituzten gizabanakoen esku-hartze arduratsua eskatzen du. Ez ditugu gauzak kolektiboentzat egiten, haiekin baizik. Hori dela-eta, horiek bitartekoak izan behar dituzte (erreferentzia-esparruak, kontzeptualizazioak, azalpenak), egoera horien ulermen ahalik eta egokituena eta horien bilakaerarako jarduera positiboa ahalbidetuko dutena.

Emantzipazioak esan nahi du pertsonak pertzepzio eta sentsibilitate partikularrak izaten ahal dituzten subjektu gisa ez ezik, jarduteko tresnak dituzten eragile gisa ere hartu behar direla.

Emantzipazio prozesuak gizabanakoak bere banakotasunaren kontzientzia hartzea ahalbidetzen duten hezkuntzaren, askotariko interakzioen eta aurkatzeen galbahetik igarotzen dira, baina baita gizartearekin lotzen duten elkarren mendekotasunen galbahetik ere, eta horien barnean eraikitzen ahal dituzte beren ibilbideak.

2. Parte-hartzea

Joëlle Zask filosofoak esaten duenez ¹, parte-hartzea, bai gizabanakoena edo taldeena, prozesu dinamikoa eta inplikazio handikoa da. Parte hartzeak « esku hartzea » rekin du zerikusia. Esku-hartzeak inplikatea esan nahi du, bere ikuspegi eta bere usteak tartean jartzea eta horiek talde baten barruan eztabaidagai bihurtzeko prest egotea. Talde horretan beste sentsibilitate eta uste batzuk sortuko dira. Hortaz, parte hartzeak ekarpena egitea esan nahi du, hau da, norberaren zerbait ekartzea (ideiak eta erabilgarritasuna). Onura ateratzea ere esan nahi du, hau da, norberak taldean inplikatzetik abantailak lortzea.

3. Adimen kolektiboa

ESKK-k uste du ulerkuntza kolektiboen eraikuntzak eta auzien ebazpenak aukera ematen duela batzuen eta besteen ikuspuntu eta esperientziek topo egiteko, eztabaidatzeko eta sinergiak ezartzeko. Aurkitutako egoeretatik abiatuta adimen kolektiboa sortzen duten interakzioez eta atzeraelikadurez osatutako hausnarketa gaitasunak garatzen ditu taldeak. Adimen kolektibo hori da, halaber, konponbide hitzartuak aurkitzea ahalbidetzen ahal duena.

¹ Zask J., 2011, *Participer. Essai sur les formes démocratiques de la participation*, Lormont, Le Bord de l'eau

4. Esperientziaren jakintzak eta haien aplikazioa

Ikuspegi zientifikoaren bidez osatuta dauden eta metodologia zehatzak eta kideen arteko eztabaidak dituzten jakintzen aurrean, badaude jakintzak gizabanakoek beren egoeraren bidez eskuratutako zuzeneko esperientziatik datozenak, beren ingurune fisiko eta sozialarekin dituzten harremanetatik (auzoa, hiria, etab.), beren espezifikotasun kultural, linguistiko eta erlijiosotik eta horrek guztiak munduarekin duten harremana eta munduak haiekin duen harremana baldintzatzen duen modutik. ESKK-k kontuan hartzen du subjektuek ezagutza formalarekin batera eskuratutako ezagutza informala barnean dagoen esperientzia.

5. Jakintzen eta praktiken gurutzaketa

ATD Quart-Monde elkartearen arabera, jakintzen eta praktiken gurutzaketa (JPG) hiru dimentsio biltzen dituen filosofia bat eta ikuspegi bat da: errealitateko ezagutza berri osoago eta inklusiboagoak ateratzera orientatutako ikerketa; errepresentazioen eta parte-hartzaileen arteko harremanen jarduera eraldatzailea; ikuspegi berriak eta gaitasun transferigarri berriak sortzeko konformazioa.

6. Komunitatea

ESKKren arabera, gai komun batek kezka bultzatuta inplikaturako gizabanako edo alderdien multzoak osatzen du komunitate bat. Nolanahi ere, komunitatea osatzen duen gizabanako bakoitzak bere berezitasunak ditu eta ez da mugatu behar bere komunitatera; egiaz, zenbait komunitate diferentetako izaten ahal da. Egitate komunitarioa nabarmentzea gauza komunaren nozioa agerian jartzea da, bai eta egoerak partekatzen dituzten gizabanakoak egoera horiek ebaluatzeko eta jarduteko printzipioak ateratzeko hobekien kokatuak direla defendatzen duen ideia ere. ESKK-k gauza komunaren baliabidea postulatu du, eta beste esperientzia, beste gauza komun batzuetatik eratorritako beste jakintza eta praktika batzuekin lotu beharko da. Garapen komunitarioa ez dago inolaz ere lotuta printzipio identitario batean ixtearekin, baizik eta gauza komuna partekatzen dutenen baliabide adituak agerian jartzearekin.

7. Esku-hartze sozial eta soziosanitarioa


Esku-hartze sozial eta soziosanitarioa jarduera sozialeko forma berezi bat da. Babes soziala kontzeptua gezurtatzen du, zeinak talde multzo baten hauskortasuna eta baztertuei laguntzen dieten baztertu gabekoen gupida gutxi-gehiago paternalista postulatu baitu. Aitzitik, beren bizi-baldintzek edo egoera jakin batzuek hauskortutako subjektu-eragileen emantzipazioari lagun egitea bezala definitzen da. Eragile horien erresilientzia gaitasuna postulatu du, beti ere beren burua berresteko aukera ematen bazaie.

8. Lurraldea

komunitateak ingurune fisiko edo birtualen barruan daude; lurraldea egiten dute. Gizabanako talde bat askatasunez hitz egiten ahal dueneko guneen zedarritzean oinarritutako geopolitika bat garatzea da lurraldea egitea.

Jarduera praktiko, fisiko eta sozialak egiteko gune pribilegiatua ere bada lurraldea. Animalia edo giza etologiako lehenengo ikasgaietariko bat da.

Nolanahi ere, taldearen beraren eta beste komunitate batzuenaren arteko mugen politika bat eraikitzea ere bada lurraldea egitea. Diplomazia ikastea da, zeina zeharkatze birtuosoaren etika baita, « egokitze arrazoizkoena »² eta « iritzi doituena »³. Bizikidetzaren adeitsua ikastea da.



2 Kanadan erabilitako hitza laikotasunaren printzipioen aplikazioan beharrezkoa den malgutasuna izendatzeko, egoera korapilatsuez ari garelarik (batez ere gutxiengo etniko edo erlijiosoek bizitakoak), zeinetan interpretazio zorrotz batek ondorio gaizto, diskriminaziozko edo desegokiak izaten ahal baitituzke. Ikuspegi horren aurkako eragozpenek sarri aipatzen dituzte izaten ahal dituzten gehiegikeriak.

3 Morizot B., 2018, *Les diplomates. Cohabiter avec les loups sur une autre carte du vivant*. Marseille, Ed. Wildproject

II. Mugaz haraindiko lankidetzak

Mugaz haraindiko lankidetzak ez du izan behar bazkideen arteko alde biko lankidetzak soilak. Lurralde mugakideen metamorfosi proiektu bat dakar berekin, ez uniformizazioaren bidez, baizik eta kulturen eta praktiken hibridazioaren bidez. Alde horretatik, lurralde antolamenduko bektore bat da, eta bere esperimentazioak europar integrazioaren laborategiak dira.

1. Lurraldeak elkar lotzea

Lurralde mugakidea lurraldeak eta beren eskala diferenteak elkar lotzeko eremua da. Oinarriko lurraldeak dira espazio mugakidean bizi diren giza komunitateen adierazpide diren espazio lokal, geografiko, historiko eta kulturalak (Cerdanyakoa bezalako goi-ordokia, Aran ibarrekoa edo Somportekoa bezalako ibar bat, Bearnokoa bezalako mendi oina, Costa Bermejakoak edo Euskal Kostaldekoak bezalako itsasbazterrak, zenbait eskualde kultural, hala nola Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Bearno, Hego Okzitania edo Euskal Herria). Herriak, mankomunitateak eta kantoiak oinarriko lurralde horien gauza finak dira.

Espazio mugakidea ere bada mugako markak osatzen dituzten lurralde nazionalen alboratzeak eta inbrikatzea zedarritutako entitate hala fisiko nola birtual hori. Fisikoa eta erreala da bere historiaren emaitza diren truke eta iragazkortasun modu batzuen isla den heinean, baina birtuala da mugaz haraindiko lankidetzako proiektu politikoaren barruan sartzen denean. Borondate politikoa dela eta, komun berri baten espazio posible gisa definitzen da.

Azkenik, lurralde mugakidea, proiektu politiko gisa eraikia, lurraldetasun zabalago baten barruan dago, integrazio bidean dagoen Europaren barruan. Europa eraikitzeko hitzarmenak sinatu eta erakundeak ezarri behar badira ere, beren barne mugetan aktibo dauden praktika eta kulturak ehun bateratu gisa hibridatzeko lana egin behar da mugaz haraindiko lankidetzaren bidez.

2. Hiru lankidetzak maila

Mugaz haraindiko lankidetzak forma diferenteak izaten ahal ditu integrazio mailaren arabera.

Lehenik eta behin, elkar ezagutzaren garapena aztertzen ahal du. Besterik gabe jakitea da nork zer egiten duen lurralde mugakide jakin batean. Sarean lan egiteko tresna batek ezinbestean edukiko du direktorio geolokalizatu motaren bat, lehen galdera horri erantzuteko aukera emango duena.

Bestalde, kulturarteko ulermenari buruzkoa izaten ahal da. Kasu honetan ulertu behar da ez soilik nork zer egiten duen, baizik eta nola eta zergatik egiten duen.

Zer esparru juridikoetan, eta zer praktikaren arabera proposatzen dira bakoitzaren jarduerak? Zein dira auzoaren paradigma handiak?

Azkenik, proiektu komunak abian jartzea aztertzen ahal du. Horretarako, ez da soilik beharrezkoa izango jakitea nork zer, nola eta zergatik egiten duen, baizik eta baita ere nola antolatu gauzak ikusteko eta egiteko molde diferenteak, kultura eta ikuspegi espezifikoaren aniztasuna eta zilegitasuna arriskuan jarriko ez duten emaitza komunak lortzeko. Batera egin beharko da lurraldea. « Diplomazia harreman mota bat da garrantzia hartzen duena lurralde berean bizi garenean existitzen diren eta eusten dioten beste gizaki batzuekin batera. Nolanahi ere, gizaki horiek ez dira ez suntsitu ez gutxietsi behar (...) gure bizitasuna haien esku baitago. »⁴



4 Morizot B., 2020, *Manières d'être vivant*, Arles, Actes Sud

III. Ekarpena sareari

Parte-hartzearen logikaren barruan, lehen aurkeztu denez, ReTsaso sarea hari atxikitzea erabakitzen duten osasun eta gizarte esku-hartze eragileek ekarpenean oinarritzen da. Sareko kideek, beren ekarpena egietan, trukean, bere abantailen eta potentzialtasunen onura lortzen dute. Horretaz gainera, sareko kide direla egiaztatzen duen ziurtagiri bat lortzen ahal dute.

1. Izena emateko inprimakia

Sareko kide izan nahi dutenek eskabide bat sinatu behar dute, eta bertan kartografia dinamikoak elikatuko duen argibideak eman behar dituzte (izena, entitatearen izena, entitatearen esku-hartze esparruak, posta kokalekua, etab.). Horretaz gainera, eskabidea baliozkotzeko, sarearen gutunera atxiki behar dira. Izen-emate eskabidea baliozkotu ondoren, sarera ekarpena egiten duten kide bihurtzen dira.

2. Dokumentazioaren eta argibideen aurkezpena

Ekarpen egiten dutenek konpromisoa hartzen dute sarearen baliabide zentroa elikatzeko dokumentuak gora kargatuz (disertazioak, artikulak, txostenak, gidak, etab.) Antolatzen dituzten edo parte hartzen duten ekitaldiei buruzko informazioa ematea onartzen dute, bai eta sareko best kide batzuentzat interesekoa izaten ahal den beste edozein informazio ere (agendan edo gaurkotasun-albisteen atalean agertuko da).

3. Foroetan parte-hartzea

Ekarpena egiten dutenek konpromisoa hartzen dute interesatzen zaizkien gaien eztabaida foroetan parte hartzeko edo berriak irekitzeko beharrezkoa denean. Foro horien bidez egiten dira elkar ezagutza, interakzioak eta lankidetzako proiektuak eraikitzea ahalbidetzen duten trukea eta aurkatzea.

4. Sare soziala


Laguntzaileak plataformaren bidez haiekin harremanetan jartzeko modua ematen duen sare sozial bat osatzen dute. Haiek beren artean identifikatzen eta komunikatzen ahal dira.

5. ReTsaso ziurtagiria lortzea

Sareko esku-hartze eraginkorreko maila kontuan hartuta, ReTsaso ziurtagiria ematen zaie ekarpena egiten dutenei, eta horrek aukera emango die ReTsasoren webean egoteko ziurtagiri hori duten kide akreditatu gisa. Kide bakoitzak onura ateratzen ahalko dio bere komunikazio pertsonalean eta kredituak lortzeko prozesuetan mugaz haraindiko lankidetzako praktika bat hitzartuz.

6. Datuen babesa

Retsaso.eu plataforman gordetako datuak Datuak Babesteko Arautegi Orokorraren (DBAO) eta jabego intelektualala babesteko jabego intelektualaren arauen babestuak.



1. Gutun honen prestaketan kontsultatutako entitateak


- Perpinyà Via Domitia Unibertsitatea
- FAIRE-ESS Perpinyàko Lan Sozialeko Eskualde Institutua
- ERASME Gizarte Laneko Profesionalen Prestakuntza Zentroa
- Etcharry Formation Développement
- Gironako Unibertsitatea
- Lleidako Unibertsitatea
- Zaragozako Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa

2. [EFA341/19] RETSASO – Mugaz haraindiko osasun eta gizarte sarea

5 ardatza - Lurraldeetako inklusioa eta eskumenak indartzea.

PI 8e - Mugaz haraindiko lan merkatuak integratzea, mugaz haraindiko mugikortasuna, enplegu baterako ekimen lokalak, informazio eta aholkularitza zerbitzuak eta baterako prestakuntza barne.

OE 9 - Lurralde mugakideko potentzial endogenoa, prestakuntza sistemen garapena eta pertsonen gaitasunak sustatzea enplegurako sarbidea hobetzeko.



Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) % 65ean finantzatu du beste erakunde batzuekin batera proiektua "Interreg V-A España-Francia-Andorra" proiektuaren bidez (POCTEFA 2014-2020). POCTEFAren helburua Espainiaren, Frantziaren eta Andorraren mugaldeko eskualdeen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da. Zehazki, jarduera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak garatzen dira mugaz gaindiko lurraldearen garapen jasangarriaren aldeko estrategia bateratuen bidez.